

GRADU AMAIERAKO LANA

# Poesia itzulpena: jarduera periferiko baten analisisia

Ane Garcia Lopez

GRADUA

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA

MAILA

4. MAILA

TUTOREAREN IZENA

NAROA ZUBILLAGA GOMEZ

EZAGUTZA ARLOA

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA

SAILA

INGELES ETA ALEMAN FILOLOGIA

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek orain arte euskarara itzulitako poesiaren gaineko analisi sakon eta osatu bat burutu nahi izan du, etorkizunera begira kontuan hartu beharreko hainbat alderdi azpimarratzeko helburuarekin. Emakumeek poesia itzulpenean duten lekuari hurbiletik begiratu diogu lan honetan, eta genero-ikuspegiak pisu nabarmena izango du, lanaren azken ataletan bereziki.

Gure helburuak lortzeko, analisia hiru multzo handitan banatu dugu, eta atal bakoitzari dagozkion ondorioak ateratzen joan gara: lehen ataletan, poesiaren eta poesia itzulpenaren izaera periferikoa aztertu dugu, eta literatur genero horrek gure polisisteman duen lekua balorazio bat egin dugu Polisistemen Teoria oinarritzat hartuta. Hori osatzeko, NordaNor katalogotik ateratako datuen analisi bat egin dugu, eta orain arte itzulitako lanak behatu ditugu. Bi multzotan aztertu ditugu itzulpenak: monografiak eta monografietatik at argitaratutako itzulpenak (1980tik aurrera). Atal horretatik ateratako ondorioetan, analisisian nabaritu ditugun hutsuneak seinatu eta etorkizunera begira landu beharrekoak proposatu ditugu.

Jarraian, orain arte itzuli denak eta itzuli ez denak euskal poesiaren polisisteman izan duen, daukan eta izan dezakeen eraginari ikusgarritasuna emate aldera, bi eredu zehatz behatu ditugu: Itxaro Borda eta Munduko Poesia Kaierak bilduma. Atal horretan, emakumeek poesia itzulpenean duten presentziak garrantzia berezia du, eta ondorioak genero-ikuspegitik osatu ditugu.

Azkenik, June Jordan idazle estatubatuarren *Poem for Nana* itzuli dugu, jardun praktikoaren bidez aurreko ataletatik erauzitako ondorioak osatzeko. Itzulpen lana egiteko baliatutako informazioa azaldu dugu atal horretan: idazlearen inguruko informazioa, poemaren analisia eta suertatutako zailtasunak. Itzulpena bera ere atal berean topatuko dugu, eta idazle periferiko bat itzultzearen erronkaren inguruko gogoetarekin biribilduko dugu atala.

Lanaren ondorio orokorrek hiru multzo horiek batzen dituzte, atalen arteko harremanak esplizitu eginez eta batak besteagan duen eragina azalduz. Euskarara itzulitako poesiaren inguruko ikuspegi orokor bat eskaintzen saiatu gara: etorkizunerako erronkak, genero-ikuspegia lantzeko proposamenak, orain arte baliagarri suertatu diren formulak (euskarriak eta bildumak, esaterako)... Jardun periferiko bati plaza eskaini nahi dio lan honek, eta helburu hori betetzeko asmoz osatu dugu analisi hau.

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>2. Poesia eta poesia itzulpena: jarduera periferikoak</b> .....	<b>4</b>
<b>3. Euskaratutako poesiaren analisisa</b> .....	<b>6</b>
3.1 NordaNor katalogoa .....	7
3.2 Monografiaren azterketa .....	8
3.3 Monografietatik at argitaratutako poesia itzulpenak.....	12
3.4 Hirugarren ataleko ondorioak .....	15
<b>4. Periferiaren periferian: Emakumeak eta poesia itzulpena</b> .....	<b>18</b>
4.1 Itxaro Borda .....	18
4.2 Munduko Poesia Kaierak .....	21
4.3 Laugarren ataleko ondorioak.....	24
<b>5. Periferiaren periferiatik ekarritako poesia: June Jordan</b> .....	<b>26</b>
5.1 June Jordan.....	26
5.2 Poemaren analisisa.....	27
5.3 Poemaren itzulpena .....	32
5.4 Bosgarren ataleko ondorioak.....	37
<b>6. Ondorioak</b> .....	<b>38</b>
<b>7. Bibliografia</b> .....	<b>40</b>
<b>8. I Eranskina: <i>Poem for Nana</i></b> .....	<b>42</b>
<b>9. II Eranskina: Monografiak</b> .....	<b>46</b>
<b>10. III Eranskina: Monografietatik at argitaratutako itzulpenak</b> .....	<b>66</b>

## 1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honek honako helburu hauek ditu: poesia itzuliak euskal literaturan duen eragina aztertzea, orain arte euskarara itzultako poesiaren analisi bat burutzea, horren inguruko balorazio eta gogoeta bat egitea, eta etorkizunera begira kontuan hartu beharreko irizpideak jarraituz, euskarara ekarritako poesiaren sistemari gure ekarpena egitea. Arreta bereziarekin aztertuko dugu emakumeek gure sisteman duten presentzia, periferian gauzatzen den poesia baita, sarri, emakumeena. Poesiarekiko interes pertsonala eta poesia itzulpenari buruzko lanen falta izan dira lan honen abiapuntua, bai eta itzulpena genero-ikuspuntua batetik lantzeko gogoia ere.

Gorago aipatu helburuak betetzeko, lehenik eta behin poesiaren “periferikotasunari” erreparatuko diogu: euskaraz sortutako nahiz euskarara itzultako poesiak literaturaren polisisteman duten lekua aztertuko dugu. Horretarako, Itamar Even-Zoharren “Polysystem Theory” delakoa baliatuko dugu.

Laneko atalik mardulena etorriko da jarraian, analisiarena hain zuzen. Orain arte euskaratutako poesia analizatzeko, NordaNor datu-basetik ateratako informazioa baliatuko dugu. Bi ataletan gauzatuko da analisia: monografiak alde batetik, eta monografietatik at argitaratutako itzulpenak bestetik<sup>1</sup>. Atal horretan, hainbat alderdiri erreparatuko diegu; hala nola, jatorrizko testuei, idazleei, itzultzaileei... eta arreta bereziz aztertuko dugu emakumeek zein presentzia eta posizio duten gure itzulpen katalogoan.

Jarraian, aurreko ataleko ondorioak sakontzeko asmoz, bi eredu zehatz ikertuko ditugu: ekimen indibidualez itzuli izan duen Itxaro Borda idazlea eta Munduko Poesia Kaierak bilduma, ekimen kolektiboa.

Lanaren gorputza osatzeko, gure ekarpena egingo diogu euskarara itzultako poesiari, June Jordan poeta estatubatuarraren poema baten itzulpenaz. Esperientzia praktikoak aurreko atalean teorizatutako hainbat alderdi argitzeko balio izango digula espero dugu.

Azkenik, euskarara itzultako poesiak etorkizunean dituen erronkez mintzatuko gara ondorioen atalean. Besteak beste, idazle eta itzultzaileen generoak eta poesia itzulia argitaratzeko euskarriek garrantzia berezia izango dutelako susmoa dugu.

---

<sup>1</sup> 9. eta 10. eranskinetan bildu dugu baliatutako informazio guztia. Horrek nabarmenki luzatu du lana.

## 2. Poesia eta poesia itzulpena: jarduera periferikoak

Bigarren atal honetan poesiak eta poesia itzuliak euskal literatur sisteman duten lekua aztertuko dugu, ondorengo ataletan azalduko zaizkigun hainbat auzik literatur generoaren beraren izaera periferikoan baitute erroa. Lehenik eta behin, poesiak dituen berezitasunez arituko gara, euskaraz sortzen den poesiaz labur-labur hitz egingo dugu gero, eta literatura itzuliak eta poesia itzuliak horren baitan duen posizioaz hitz egingo dugu jarraian.

Izan ere, zein ezaugarrik bereizten du poesia beste generoetatik? Zergatik dira itzultzaile batzuk poesia itzultzeko beldur? *Literatura Terminoen Hiztegiak*, poesiaren inguruan duen sarreran bertan, argi uzten du ez dagoela definizio zehatzik, baina poesiaren ezaugarri bereizgarri batzuk eskaintzen dizkigu: “esakuntza mailan, poeta bere izenean mintzo da, bere sentimenduak ditu mintzagaitzat hartzen eta erakusten” (Euskaltzaindia,-). Beraz, definizio zehatzik gabe ere ikus dezakegu barneko espresioarekin, poetaren intimitatearekin zerikusi berezia duen literatur generoa dela poesiarena. Bada, ordea, poesia definitzeko itzulpenaz baliatu denik: “Poetry is a memorable speech which is lost in translation” (Frost, 1969).

Badirudi ia harrapatu ezinezko zerbait dela poesia, eta poeten intimitate hori ulertzea ez dela beste generoetan, narratiban esaterako, bezain sinplea. Erabiltzen den hizkuntzak eta hitzek garrantzia berezia dute eta poetaren unibertso poetiko zehatzaren parte dira. Ondorioz, itzultzaileak esfortzu aktibo nabarmena egin behar du poemaren mamira hurbiltzeko edo poetaren asmoak ehizatzen. Eta itzulpen txukunak egitea posible den arren, esan genezake interpretazio hutsa izango dela itzulpena beti.

Poesiaren izaera konplexuaren harira, esan beharra dago mundu mailan poesia ez dela beste generoak bezainbat irakurtzen. Euskal literatura ez da salbuespena zentzu horretan, eta euskaraz sortutako poesiak berak ere ez du zentraltasunik euskal literatur polisisteman. Poetak izan baditugu: Kirmen Uribe, esaterako, itzal handiko idazlea da gurean; eta bere mailako beste asko aipa litezke: hala nola, Jose Luis Otamendi, Joseba Sarrionandia, Itxaro Borda, Amaia Lasa... Eta halere, narratiba guztiz gailentzen zaio poesiari eta gainerako generoei, eta poesia gutxi argitaratu eta are gutxiago irakurtzeko joera areagotu egin dela esan liteke. Izan ere, Otamendik berak esan bezala, “motelegi bizi gara poesia irakurtzeko, entzuteko” (Sarasketa, 2002).

Poesia itzuliari dagokionez, Itamar Even-Zoharrek proposatutako Polisistemen Teoria delakoa baliatuko dugu, genero hori euskal itzulpenaren polisistemaren baitan kokatzeko. Izan ere, Even-Zoharren ustez literatura itzuliak “an integral system within the literary polysystem” osatzen du (Even-Zohar, 1990). Sistema osatu bat den aldetik, zentroa eta periferia izango ditu, beraz, eta bertan ere, “while one section of translated literature may assume a central position, another may remain quite peripheral” (Even-Zohar, 1990). Azken hori litzake poesia itzulpenak gurean hartzen duen lekua: periferiakoa. Hala berresten dute datuek ere: literatura itzuliaren baitan poesia %8 baino ez da (López Gaseni, 2009).

Beraz, esan liteke euskaraz sortutako nahiz euskarara itzultako poesiak polisisteman posizio periferikoa dutela. Halere, horrek ez du esan nahi bata bestea elikatzen ez duenik: euskaraz sortutako poesiaren sistema ahula dela esan liteke, eta horregatik behar direla itzulpenak. Alabaina, guk beste arrazoi sendoago bat ikusten dugu poesia itzulpenaren atzean.

“This dynamics within the polysystem creates turning points, that is to say, historical moments where established models are no longer tenable for a younger generation.” (Even-Zohar, 1990)

Hurrengo ataletan ikusiko dugunez, eredu falta izan da hain zuzen hainbat idazle poesia itzultzera bultzatu dituen (ikus 4. atala): itzultzaileek hutsune bat identifikatu eta itzultzeari ekiten diote. Modu horretan, “foreign features are introduced into the home literature which did not exist there before [...] such as a new poetic language” (Even-Zohar, 1990). Hutsune horiek zein diren identifikatzeko asmoarekin, orain arte euskaratutako poesiaren analisia burutu dugu hirugarren atalean.

### 3. Euskaratutako poesiaren analisia

Euskal itzulpengintzak izan dituen joera nagusiei jarraiki, poesia ez da ia euskaratu XX. mende arte (itzulpen katalogoan ikus daitekeenez, 3 lan baino ez dira itzuli XX. mendea baino lehen). Areago, poesia itzulpena batez ere 1980tik aurrera garatutako jarduna dela esan liteke. Monografiaren kasuan, adibidez, %81 1980ko hamarkadatik aurrera itzuli da. Horren atzean hainbat faktore topa ditzakegu, euskal itzulpenari modu globalean eragin diotenak: alde batetik, Euskara Batuaren sorrera, 1968ko urrian, erabakigarria izan zen euskararen normalizazio eta normatibizaziorako, eta zentzu askotan itzultzaileen jarduna erraztu eta sustatu zituen; bestetik, Frankoren diktadura jada bukatuta, 1982an onartutako Euskararen Legeak euskararen erabilera sustatzeko bideak ezarri zituen, eta itzulpen jarduna areagotu egin zuen horrek. Azkenik, ezin dugu faktoreen artean aipatu gabe utzi hain zuzen 1980ko hamarkadaren bueltan hasi ziren literatur banden eragina (*Pott, Oh Euzkadi*), hain zuzen ere kanpoko literaturak ekartzeari eta itzulpenari eman zioten garrantziagatik.

Halere, bigarren atalean aipatu bezala, euskal poesiak literatur sisteman posizio periferikoa duen modu berean, poesia itzulpena ere periferian geratu da euskal itzulpenaren sisteman, eta periferian jarraitzen du gaur egun ere. Zentzu horretan, gurea ez da inolako salbuespena, munduko literatur polisistema gehienetan hala gertatzen baita. Hori dela eta, ez da harritzekoa euskaratutako poesia kopurua urria izatea. Ez soilik urria, gaineratu liteke lagin eklektikoa dela, eta “ausazko” hautaketa baten emaitza ia. Horrekin esan nahi da itzultzaileen ekimen indibidualez eta horien gustu eta ideologiaren baldintzapean eraikitako lagina dugula esku artean. Sarrera honi jarraitzen dion analisisian ikus daitekeenez, euskaratutako poesia “desordenatu” samar iritsi zaigu, beraz, XXI. mende honetara.

Gainera, ez dago itzultitakoa bere osotasunean ikertu duen lan akademikorik<sup>2</sup>, eta hortaz, itzultitakoaren gainean gogoeta sakon bat egin eta ondorioak ateratzeko paradarik ere ez dugu izan geurean. Itzultzaileek garrantzi berezia dutenez itzulpenaren genero periferiko honetan, beharrezko iritzi diogu orain arte egindako lanaren inguruko ikuspegi zabal bat eskaintzeari itzultzaileei eta poesia itzulpenaren munduan ibiltzen direnei. Beraz, adierazi nahi genuke analisi xume honen helburu nagusia dela poesia

---

<sup>2</sup> Aitor Blanco Leozek poesia itzuliaren inguruan egin zuen Master Amaierako Lana (Blanco Leoz, 2015), baina ez zuen euskaratutako lagin osoaren analisisirik egin. Aitzitik, poesia itzultzeari buruzko teoria eta bereziki hitz neurtuaren itzulgarritasunaren inguruko gogoeta landu zituen bere lanean.

itzulpenaren genero periferiko horrek etorkizunean kontuan izan beharko lituzkeen alderdi batzuk nabarmentzea.

### 3.1 NordaNor katalogoa

Orain arte euskarara itzultako poesia lanen analisi bat egite aldera, EIZIEren NordaNor itzulpenen datu-basera jo dugu, informazio iturririk fidagarri eta osatuena delako. Jakina denez, katalogazioarena inoiz amaitzen ez den lana da, eta zaila da datu guzti-guztiak bere osotasunean biltzea. Hala ere, NordaNor-en bildutako informazioa nahiko osatuta dagoela iruditzen zaigu. Izan ere, datu-basea beste bi ekimenen uztarketatik sortu zen, EIZIEren katalogo zaharkitua eta Itzulbaita elkartu egin zituztenean. Armiarma plataformarekin<sup>3</sup> eta ELI katalogoarekin<sup>4</sup> elkarlanean aritzen da, baina Armiarmari ez bezala, NordaNor katalogoari itzulpenen inguruko datu zehatzak interesatzen zaizkio, eta ez itzulpenen edukia bera eskaintzea.

Oraingoz literatura lanak baino ez ditu biltzen, heldu zein haur eta gazte literaturari dagozkionak. NordaNor-en kudeatzaileetako batek, Bego Montoriok, esan zigunez, katalogoa mamitzen hasteko errazena omen zen literatura. Katalogoaren helburu nagusia datu horiek gizartearen esku ezartzea da, eta kazetari edo irakasleentzat oso baliagarri izan daitekeela uste dute. Beraz, katalogoa ikertzaileentzat baliagarri den arren, ez zen haientzat propio sortu.

NordaNor katalogoak itzultzaileak zein itzulpenak bilatzeko aukera eskaintzen du. Gure kasuan, itzulpenak interesatzen zaizkigunez, bilaketa egiteko hautu hori egin dugu. Itzulpenen kasuan, katalogoak bilaketa egiteko hainbat parametro eskaintzen ditu: jatorrizko titulua, itzulpenaren titulua, egilea, jatorrizko hizkuntza, itzulpenaren hizkuntza, testu mota, argitaletxea, itzultzailea, jatorrizkoaren argitalpen data eta itzulpenaren argitalpen data.

Lana egiten hasi ginenean, bilaketa egin ostean monografiak baino ez zeuden ikusgai. Horregatik, Bego Montorioren bitartez lortu genituen monografietatik at argitaratu diren itzulpenen inguruko informazioa. 2016ko martxo inguruan, ordea, EIZIEk ikusgai jarri zituen bestelako plataformetan argitaratutako itzulpenak ere.

---

<sup>3</sup> <http://armiarma.eus/>

<sup>4</sup> <http://www.ehu.eus/ehg/eli/>



### 3.2 Monografién azterketa

Gure bilaketa egiteko, “testu mota” atalean “poesia” hautatu dugu, eta “itzulpenaren hizkuntza” atalean “euskara”; modu horretan, 136 emaitza<sup>5</sup> azaldu ziren lehenengo, denak ala denak monografiak. Halere, 136 lan horietatik hiru antologiak<sup>6</sup> sorburu hizkuntza ere euskara zutenez, bazter utzi ditugu: 133 lanen itzulpenak ditugu aztergai, beraz.

Monografia itzuliak Excel batera pasa, eta aztertzeke interesatzen zitzaizkigun aspektuak idatzi genituen bertan. Hasieran, monografién ezaugarri ugari ikertu nahi genituen: egilea, egilearen generoa, jatorrizko hizkuntza, jatorrizko libururik ba ote dagoen edo ez, itzulpena jatorrian antologia bat zen edo ez, itzultzailea, itzultzailearen generoa, jatorrizkoaren argitalpen urtea, itzulpenaren argitalpen urtea, argitaletxea, eta monografia bilduma batean argitaratu den ala ez.

Aldiz, ikerketa lana egiten hasi eta ohartu ginen komenigarria zela ezaugarri batzuen azterketa alde batera utzi, eta gure ondorioetarako garrantzitsuenak ziren datuak sakon aztertzea. Hala, honako hauek dira analisi honetan landuko diren alorrak: jatorrizko testua eta antologiak, egileak, itzultzaileak eta generoa.

#### 3.2.1 Jatorrizko testua eta antologiak

133 lan horietatik 61 jatorrizko testuk ez dute izenik, hau da, kasuen %45,8. Horrek bi gauza adieraz ditzake: katalogoak ez duela jatorrizkorik topatu, edo ez dagoela jatorrizkorik. Xede hizkuntzan argitaratutako monografiari erreparatuta, ikus daiteke itzulpenekin antologia bat osatu dela, eta beraz, ondoriozta daiteke ez dagoela jatorrizko libururik bere horretan.

Datu horrekin batera, azpimarratzekoa da izenik gabeko 8 lanek jatorrizko idazle bat baina gehiago dutela. Baliteke jatorrian ere antologiak izatea, baina ia ez bairik gabe ziurta dezakegu probableena dela itzulpen antologia bat osatu izana gai, hizkuntza edo aro baten inguruan. Hori da adibidez, Gerardo Markuletak itzulitako *Antologia: poeta katalan garaikideak* edo *Antologia: zenbait poeta katalan* itzulpenekin gertatzen dena.

---

<sup>5</sup> 2016/03/17an egindako bilaketa.

<sup>6</sup> *A ponte das palabras: poesia vasca 1990-2000, Concours de poésie basque a Sare en 1871 [Antologia], Siete poetas vascos [Antologia]*

51 itzulpen dira antologia forman argitaratutakoak. Idazle bakarraren edo idazle bat baino gehiagoren lanek osatutako antologia dela ere, hautu subjektibo baten emaitza dira antologiak, eta kasu horretan, argi geratzen da itzultzailearen lana ez dela soilik hitzak itzultzea, baizik eta zubi-lana egiten duela. Erantzukizun handia izan daiteke hori, euskal poesiaren polisisteman eragin zuzena izan baitezake horrek.

“Gerardo Markuleta paraturiko hau antologia da. Horrek esan nahi du antologia egileak bere gustuko edo bere sokako poetak hartu dituela, bere gustuko poemak itzuli dituela, bere irizpide soilak duela lagun eta gogaide.” (Juaristi, 1995)

### 3.2.2 Idazleak

Antologietan soilik ageri diren egileak kenduta, eta kontuan izanda lau itzulpenek jatorrizko egile ezezaguna dutela, 101 egile ezberdinen lanak itzuli dira euskarara monografia gisa. Errepikapen gutxi dago, beraz; egile bakoitzeko lan bat ia. Honako hauek dira errepikatzen diren poetak: Virgilio (5 lan), Dante (5 lan), Friedrich Holderlin (3 lan), Charles Bukowski (2 lan), Catulo (2 lan), Charles Baudelaire (2 lan), Felix Maraña (2 lan), Felix Maria Samaniego (2 lan), Gabriel Celaya (2 lan), Jean de La Fontaine (2 lan), San Juan de la Cruz (2 lan), Quinto Horacio (2 lan), Uxio Novoneyra (2 lan), William Shakespeare (2 lan), Homero (2 lan).

Izen horiek ikusita, aipatzekoa da garai ezberdinetakoak izan arren, idazle horietako gehienak kanonaren zakutik ateratakoak direla. Halere, autore horietako bakoitzaren lanetatik egindako itzulpen kopurua ez da proportzionala horietako bakoitzak munduko literatur kanonean duen pisuarekin alderatuta. Esaterako, Shakespearen bi lan baino ez daude itzulita, Uxio Novoneyra ezezagunagoaren pare, eta bi egile horiek mendebaldeko literatura kanonikoan duten itzala ez da berbera.

Fenomeno horren atzean arrazoi nagusi bat dago: poesia itzulpenaren kasuan, itzultzaileek berebiziko garrantzia dutela beti, eta haien hautuek baldintzatuta itzultzen dela egile bat edo beste. Baina noski, itzultzaileak pertsona subjektiboak diren heinean, kanonarekin duten harremana eta harekiko fideltasuna ezberdina dira. Era berean, itzultzaileen testuinguru sozio-historikoak ere badu eraginik itzulgaien hautaketan, eta garaian garaiko joeren isla ere badira; horrexegatik topatu ditzakegu Shakespeare eta Novoneyra euskaratutako poesiaren katalogoan.

“Klasiko handien” kasuan, Virgilio eta Homeroren itzulpenak, esaterako, Ibinagabeitia, Onaindia eta beste hainbat itzultzailek XX. mende erdialdean landu zuten itzulpen “joeraren” emaitza dira. Garai hartakoek klasikoak euskal literatur sistemara ekartzeko beharra ikusi zuten, eta zentzu horretan, esan genezake kanonari hertsiago lotu zitzaizkiola.

Aldiz, 1980ko hamarkadatik aurrera aritu diren hainbat itzultzailek “libreago” jokatu dute kanonarekiko, eta haien iritziz euskaratua beharko lukeena itzuli dute. Esan liteke Even-Zoharrek aipatutako “turning point” (1990) bat eman zela 80ko hamarkada hasieran, eta garaiko idazle gazteek eredu berriak bilatu zituztela kanpoan. Adibiderik garbientako bat Sarrionandia izan liteke.

Beraz, esan genezake euskaratzeko itzulgaiak hautatzeko garaian kanonak baduela pisurik, baldin eta itzultzailearen baitan eraginik badu. Itzultzaileak, ondorioz, kanona baino erabakigarriagoak dira, eta haien lanak euskal polisistema eraldatzen du. Bestalde, aipatzekoa da itzultzaileek garaian garaiko joeren eraginpean lan egiten dutela, eta euskal poesiagintzan ikusten dituzten (edo ikus ditzaketen) hutsuneek ere eragin handia dute poesiaren euskal itzulpenean.

### 3.2.3 Itzultzaileak

Itzultzaileei dagokienez, guztira 84 itzultzailek itzuli dute poesia monografia euskarara. Horietatik 78 bakarrik aritu dira, eta gainerako 6ak elkarlanean. Guztira, 8 lan itzuli dira elkarlanean. 9 lanetan ezin izan dut itzultzailea nor izan den zehaztu, informazio faltagatik.

Ez da itzultzailerik nabarmentzen bereziki, nahiz eta batzuk emankorragoak izan diren besteen aldean: Juan Angel Etxebarria (7 lan), Koldo Izagirre (6 lan), Josu Landa (5 lan), Gerardo Markuleta (4 lan), Andima Ibinagabeitia (3), Eduardo Gil (3), Joseba Sarrionandia (3), Juan Garzia (2).

Aurrekoarekin lotuta, nabarmentzekoa da itzultzaile emankorrenen artean idazle ugari dagoela. Adibidez, gorago aipatutakoen artean, zortzitik 5 idazleak dira (Izagirre, Markuleta, Sarrionandia, Landa eta Gil). Irudipena daukagu joera hori ez dela beste itzulpen generoetan gertatzen, nahiz eta baieztapen horrek azterketa sakonagorik behar duen.

Era berean, lan bat baino gehiago itzuli dituzten itzultzaileengan nabarmen geratzen da “itzultzaile/idazle” horren joera edo obsesioa: Koldo Izagirrek, esaterako, galegotik 3 lan itzuli ditu, argi dago Gerardo Markuletari poesia katalana gustatzen zaiola... Hala, agerian geratzen da itzultzaile eta itzulgaiaren arteko harremana ez dela batere ausazkoa, harreman intimoa dela, eleberri, saiakera edo antzerki-lan batekiko sortu litekeen harremana baina estuagoa.

### 3.2.4 Idazle eta itzultzaileen generoa

Lan honetako 4. puntuan sakonago landuko dugun arren, gure laginean bildu ditugun idazle eta itzultzaileen generoari buruz mintzatuko gara azkenik. Bildutako datuen arabera, 133 lanetatik 15ek baino ez dute jatorrizko egile emakumea. Horiez gain, 2 antologiatan ere ageri dira emakumeak, eta 2 lanen kasuan ezin izan dut zehaztu emakumerik ba ote den egileen artean, informazio falta dela medio. Horrek esan nahi du, antologiak kontuan hartu gabe, monografia forman argitaratutako lanen %11,3 direla emakumeek idatzitakoak. Kopuru urria, inondik inora.

Genero-ikuspegitik begiratuta, datu horiek baloratzeko orduan, ezberrik gabe esan dezakegu euskaratutako poesiak kanonaren (eta gizartearen) joera “klasikoak” imitatu dituela: izan ere, emakumeen presentzia eskasa izan da kanonari egiten zaion kritika nagusietako bat. Hala izan da euskal literatur kanonaren kasuan ere: “% 15 inguru gara emakumeak euskal literaturan, ezta hamarretik bi ere.” (Jimenez, 2011) edo “«emakumeen literaturaren booma» delako mitoarekin irudi faltsua zabaldu da, hau da, emakume idazle asko dagoela eta nolabaiteko parekotasunera heldu dela.” (Ubeda, 2014) bezalako esaldiek agerian uzten dute zein den egoera gurean. Horrek ondorioak izan baditu gure literatur sisteman eta itzulpengintzan, hain zuzen ere emakume sortzaileen falta horrek bultzatu baitu itzulpen jarduera kasu batzuetan, baina hori sakonago landuko dugu laugarren puntuan.

Itzultzaileei erreparatuta, egiaztatzen dugu egoera ez dela hobea; aitzitik, emakumeen presentzia oso urria da hainbat eremutan, poesia itzulpena barne. 84 itzultzailetik 4 dira emakumeak. Ez da %5era iristen.

Datu hori harrigarria suertatu zaigu, jakin baitakigu EHUko Itzulpengintza ikasleen artean belaunaldiko mutil kopurua ez dela 10etik igotzen. Noski, aurretiaz ikusi ahal

izan dugunez, poesia itzuli duten asko ez dira itzultzaileak. Halere, datu horrek adieraz lezake euskal itzulpengintza “kanonikoa” oraindik ere oso maskulinoa dela.

### **3.3 Monografietatik at argitaratutako poesia itzulpenak**

Gorago aipatu bezala, lana egiten hasi arte ez genuen izan monografietatik at argitaratutako itzulpenen berri. Lehenengo unean, asmoa monografia horiek soilik aztertzea izan zen arren, analisi osatuago bat egiteko ezinbestekoa iruditu zaigu itzulpen solte horiek, aldizkari edo/eta sarean argitaratutakoak, aztertzea.

Monografiaren gainean egindako azterketan bezala, hautu batzuk egin behar izan ditugu kasu honetan ere. Izan ere, analisiaren bigarren atal honetan 1029 lanez osatutako lagina genuen aztergai. Emaitzen kopuru mardul horren aurrean, iruditu zaigu guztia analizatzen hastea gehiegizkoa zela, horrek denbora eta dedikazio gehiegi eskatuko bailuke. Hala ere, datu-base osoaren analisia ikerlan interesgarria izan liteke tesi baterako.

Gure lanerako gehien interesatzen zaiguna azken urteotan itzulitako poesia denez, eta gure ikerlanari bereziki poesia garaikidea interesatzen zaionez, zilegi iruditu zaigu lagina mugatzea. Ondorioz, monografia moduan argitaratutako poesia itzulia bere osotasunean aztertzeaz gain, 1980tik aurrera monografia ez den formatuetan argitaratu den poesia izango dut ikergai honako atal honetan.

1980 urtetik aurrerako itzulpenak soilik kontuan hartuta, 691 itzulpen ditugu aztertzeko<sup>7</sup>. Aipatzekoa da, monografietan ez bezala, kasu honetan itzulpenak hiru multzo handitan banatzen direla duten euskarriaren arabera: liburuetan argitaratutako txatalak, webguneetan argitaratutakoak eta aldizkarietan argitaratutako itzulpenak ditugu.

Atal honetan, beraz, aurreko atalean aztertu ditugun datuei erreparatzeaz gain, hiru euskarri horien arteko banaketa ere ikertuko dugu.

#### **3.3.1 Euskarria**

Aipatu bezala, hiru dira monografietatik at argitaratutako poemek dituzten euskarriak. Euskarrien gaia garrantzitsua da euskarara ekarritako poesiaz ari garenean,

---

<sup>7</sup> 2016/03/23an Josu Landak emailez bidalitako Excel batean bildutako datuak.

izan ere, “batzuetan lotuta doaz genero eta euskarriak, genero batzuk aldizkarietan edo webguneetan gehiago argitaratu baitira, poesia kasu.” (Manterola, 2011)

Gure laginean, 286 itzulpen aldizkarietan argitaratu dira 1980tik aurrera. Historikoki, XX. mendearen ia bukaerara arte aldizkariak berebiziko garrantzia izan dute euskal literaturan, eta hainbat itzulpen argitaratzeko plaza izan dira. Halaber, garrantzia berezia izan dute poesia itzulpenaren kasuan: “Poesia lanen itzulpenak, bereziki, paperezko aldizkarietan zein web orrietan argitaratu izan dira.” (Manterola, 2011). Orotara, 42 aldizkarik argitaratu dituzte itzulpenak (*Maiatz*, *Hegats* edo *Senex* besteak beste), eta azken 10 urteotan, euskarri horren erabilerak beherantz egin du nabarmen, web bidezko euskarrien gorakada dela medio.

304 itzulpen txatal moduan argitaratu dira beste liburu batzuetan. Liburu horietako batzuk soilik poesia itzuliez osatuta daude, beste batzuetan itzulpen solteak ageri ziren testu baten lagungarri. Guztira, 14 liburutan argitaratu dira txatalok, helburu ezberdinekin.

Euskarri mota horren erabileran, Joseba Sarrionandiak garrantzia berezia du. Izan ere, hiru liburu osatu ditu soilik poema itzuliekin (hainbat sasiitzulpenekin batera): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, *Hezurrezko Xirulak* eta *Alkohola Poemak*. Luigi Anselmik ere *Bertzerenak* argitaratu zuen formatu horretan, Koldo Izagirreraren hainbat poema itzuli agertu ziren *Ahalegina* liburuan eta Hedoi Etxarteren *Ihes ederra* irudi-eleberria hainbat poema itzulik osatzen dute. Izagirre, Anselmi eta Sarrionandiaren kasuan, esan genezake antologia guztiz pertsonalak direla osatu dituztenak, eta susmatzen dugu itzulpen horiek burutzearen helburua ez dela horien argitalpena izan; aitzitik, erreferentzia gosez edo idazle-abilezia “entrenatzeagatik” egindako itzulpenak izan litezke. Etxarteren lanak, bere aldetik, poesia itzulia baliatzen du eleberria osatzeko, eta beste hainbat elementurekin nahasten du.

Halere, aipatzekoa da formatu horretan argitaratzea ez dagoela edonoren esku; idazle-itzultzaile horiek badute aurretiaz izenik euskal literaturan, eta, beraz, haiek itzulitakoarekin osatutako liburuek nolabaiteko oihartzuna izango dutela jakin badakite.

Horrez gain, hezkuntzarako ere itzuli dira poemak, hala nola, Literatura Unibertsaleko eskuliburu-entzako eta Lur Entziklopedia Tematikorako. Logikoaenez,

irakasgaiekin zerikusia duten poetak itzultzen dira kasu horietan, hau da, kanonikoenak: Pessoa, Dante, Kavafis, Brecht...

Azkenik, EIZIEk ere bere itzulpen antologietan hainbat poema argitaratu ditu txatal moduan.

Webguneetan argitaratutako poemei dagokienez, oraingoz 101 poema biltzen ditu katalogoak. Hiru euskarrien artean poema gutxien dituen da, baina aipatzekoa da gehientsuenak azken 5 urteetan argitaratuak izan direla. Teknologia berrien eraginaren adierazgarri da hori zalantzarik gabe, eta euskarri horren erabilerak gorantz egingo duela aurreikusten dugu, hainbat arrazoi direla medio: ekonomikoagoa da, zabaltzen erraza eta edonork argitara dezake online.

Armiarma.eus webgunea nabarmentzen da ezbairik gabe, baina ezin aipatu gabe utzi Hitzen Uberan, Volgako Batelariak edo Elearazi blogak<sup>8</sup>.

### 3.3.2 Jatorrizko testua

Analisiaren bigarren atal honetan sarri poema solteez ari garenez, lan zailagoa da sailkapen orokorra egitea. Ezin dugu jakin nondik atera dituen itzultzaile bakoitzak poemak, eta beraz, ezin dugu joera nagusirik antzeman. Idazleen inguruan mintzatzea errazago suertatuko zaigu. Gainera, zaila da jatorrizko testua zein hizkuntzatan dagoen eta itzultzaileak zein hizkuntzatik itzuli duen bereiztea, zubi-hizkuntzak era askotan erabili baitira. Aiora Jakaren tesian, esaterako, ondorioztatzen zen Sarrionandiak ez zuela, jakina, hainbeste hizkuntzatatik zuzenean itzuli, zubi-hizkuntzak erabili zituela (Jaka, 2012).

### 3.3.3 Idazleak

Guztira 343 idazle itzuli dira monografietatik at. Monografien aldean, esan genezake hemen poeta “ezezagun” gehiago dagoela. Horren atzean dagoen arrazoia formatua izan liteke: monografia moduan argitaratzen den itzulpena saldu egin behar da gero, eta jatorrizko idazlearen izena ezezaguna bada zaila izango da hori. Monografietatik at argitaratuko denez, itzultzaileak berak ez du “irakurleengan” eta literatur merkatuan pentsatu beharrik izango, eta libreago egingo du itzulgaiaren hautua.

---

<sup>8</sup> Esan beharra dago, Elearazi blogak edukia paperera pasa zuela eta liburu gisa argitaratu zutela.

Halere, oraindik ere kanonikoen presentzia nabarmena da: Shakespeare, Heinrich Heine, Wolfgang Goethe, Hermann Hesse, Horazio, Victor Hugo, Pablo Neruda, Ezra Pound, Reiner Maria Rilke... Berrikuntza bat dago atal honetan ere: kantak ageri dira: Bob Dylan, Lluís Llach, Atahualpa Yupanki, Paul McCartney...

### 3.3.4 Itzultzaileak

130 itzultzaile inguru aritu dira poesia itzultzen. Asko aurreko atalean azaldu dira, eta izen ezagunak dira; beste batzuk berriz, berriak dira. Esan liteke idazle-itzultzaileen presentzia hemen handiagoa ere badela, eta poesia argitaratutako idazle gazteak ageri dira (Hedoi Etxarte bera, Oier Guillan, Kirmen Uribe, Gotzon Barandiaran...). Monografia osoa itzultzea lan handia da, eta akaso errazago suertatzen da gustuko poema bat itzuli eta [armiarma.eus](http://armiarma.eus)-en argitaratzea.

### 3.3.5 Generoa

Genero-ikuspegitik egindako analisiari dagokionez, monografietatik at kopuruak apur bat aldatzen diren arren, ez dugu erabateko aldaketarik topatu hemen. 691 itzulpenetatik 70 dira emakumeek idatzitako poemak: itzulpen lagin osoaren %10,13 da hori. 343 idazletik 46 dira emakumeak: kopuru osoaren %13,4.

Itzultzaileei erreparatuta, ehunekoek apur bat egiten dute gora. Guztira, 65 lan emakumeek itzuli dituzte (batzuek elkarlanean). Edonola ere, hasiera batean 21 emakume itzultzaile aritu dira poemak itzultzen, itzultzaile kopuru osoaren %16,15.

Gure aurreikuspenak bestelakoak ziren arren (kanonarekiko lotura gutxiago dagoela monografietatik at, itzultzaileek askatasun gehiago dutela itzulgaia hautatzeko...), genero kontuak ez dira asko aldatu analisiaren lehenengo ataletik hona. Gainera, atal honetan ateratako kopuruak euskal literaturan aritzen diren emakumeen ehunekora hurbiltzen dira, hau da, %15aren bueltan dabilta.

## **3.4 Hirugarren ataleko ondorioak**

Lehenik, esan liteke euskaratutako poesiaren kasuan, itzulgaia eta itzultzailea banaezinak direla; hau da, euskaratutako poesiaren lagina aurrean dugun hori izatea itzultzaileek egindako hautu pertsonalen ondorio da, hein handi batean. Horrez gain, esan liteke kanonaren eragina egon badagoela, baina eragin hori mugatua dela, eta itzultzaileak bizi duen errealitatearen arabera.



Itzultzailearen profilari dagokionez, orokorrean gizonezkoek itzulitako poesia ateratzen da argitara gurean. Gainera, itzultzaile asko poeta ere badirela aipatu behar dugu. Susmoa dugu, poesia itzultzea haiek euskaraz idazten dutenean sumatzen dituzten hutsuneak betetzeko modu bat dela; izan ere, ziur asko poetak berak dira euskal poesiaren sistemarekin eta haren beharrekin harremanetan daudenak. Haien abilezia literarioa lantzeko ariketa izan liteke itzulpena. Edonola ere, fenomeno hori poesia itzulpenean bereziki gertatzen delako inpresioa dugu; eleberrien kasuan, adibidez, ez da horrenbeste idazle-itzultzaile aritzen.

Euskarriari dagokienez, monografietatik at itzulitako poesiak argi uzten du ekimen indibidualetatik abiatuta itzuli dela poesia gehien, eta ekimen horien indarra biltzeko euskarriak egon badauden arren (armiarma, Munduko Poesia Kaierak...), oraindik ere ez dira nahikoa. Teknologia aurrerapenak direla medio, Internet baliabide ezin hobea dugu halako itzulpenak argitaratu eta zabaltzeko, eta blogak oso baliagarri suerta litezke. Izan ere, aurrean dugun laginaren heterogeneotasuna eta eklektizismoa positiboa da, hutsuneak eduki badituen arren, euskal kulturara askotariko poesia ekartzea bermatzen duelako. Era berean, mundu editorialari lotuta ez dauden euskarriek periferiako literatura itzultzea mesedetzen dute.

Azkenik, genero kontuei dagokienez, aipatzekoa da bi atalen arteko aldea ez dela aurreikusitakoa bezain nabarmena izan. Hain zuzen ere, idazle eta itzultzaileen generoari erreparatzean hauteman daiteke gehien kanonaren itzal luzea gurean. Ehunekoek azaltzen duten errealitatea ez dator bat euskal itzultzaileen errealitatearekin. EHUUn, esaterako, 50 ikasle inguru graduatzen dira urtero, eta normalean gizonezkoen kopurua 5-10 artekoa da. Beraz, arrazoia ez da emakumezko itzultzaileen falta.

Aitzitik, ehuneko horien atzean gure gizarteari estrukturaliki eragiten dioten hainbat arrazoi daudelako ustea dugu. Lehena eta ukaezinena da euskal poesiaren itzulpena ere heteropatriarkatuaren isla dela: alde batetik, kanonak batez ere gizonak aintzatesteko duen joera imitatzen du; bestetik, literaturan eta haren inguruko jardunean, itzulpenean adibidez, gizonezkoek duten espazioa askoz ere handiagoa izan dadin ahalbidetzen du gizarte-eredu horrek. Ondorioz, emakumeen literatura eta haien itzulpen jarduna periferiko bihurtzen da. Euskal literaturan aritzen den emakumezkoen kopurua, itzultzen den emakume kopurua eta itzultzaileen kopurua antzekoak izatea oso esanguratsua da, zentzu horretan.

Amaitzeko, esan liteke poesiaren euskal itzulpenak baduela zer hausnartu eta etorkizunera begira erronka dezente izan badituela. Euskarriek eta genero-ikuspegia txertazeak garrantzia izango dutela ere aurreikusten dugu.

#### **4. Periferiaren periferian: Emakumeak eta poesia itzulpena**

Poesia idaztea periferikoa bada, are periferikoagoa da hura itzultzea, eta are gehiago itzultzen dugun hori sistemaren periferiatik ekarri behar baldin badugu gurera. Hirugarren atalean, etorkizunera begira landu beharreko hiru alderdi azpimarratu ditugu ondorioak biribiltzeko: poesia itzulpena ekimen indibidual gisa, generoa eta itzulpenaren inguruko erronkak, eta itzulpenak argitaratzeko euskarrien garrantzia.

Laugarren atal honetan, hiru kontzeptu horietan sakonduko dugu bi eredu zehatzen bitartez: Itxaro Borda idazle eta (hein batean) itzultzailea, eta Munduko Poesia Kaierak bilduma. Bi eredu horien hautaketa guztiz pertsonala izan da, baina inola ere ez ausazkoa; hain zuzen ere, interesatzen zaizkigun alderdiak lantzeko aproposak direlako hautatu ditugu.

Alde batetik, Borda oso egokia iruditu zaigu, gure analisiaren emaitzek azaleratu duten errealitatearen oso bestelakoa delako: emakumea da, idazlea eta itzultzailea, emakumeen poesia ugari itzuli du, lesbiana da, Iparraldekoa... Hau da, euskal gizartearen hegemoniatik aldentzen da, eta, hala ere, esan genezake, periferiatik aritzen den idazle kanonikoa dela.

Bestalde, Munduko Poesia Kaierak bilduma ere aztertuko dugu (haren hastapenak, funtzionamendua, helburuak...); izan ere, indibidualki egiten den jarduna, hau da, poesia itzultzea, euskarri bakarrean batzeko saiakera dela esan liteke. Beraz, Beñat Sarasola bildumaren zuzendariarekin izandako elkarrizketa azalduko dugu.

##### **4.1 Itxaro Borda**

Gorago aipatu bezala, Itxaro Bordak euskal literaturaren eta euskal gizartearen hainbat ezaugarriekin hautsi du. Besteak beste, emakume, lesbiana eta iparraldekoa den aldetik, hainbat poematan “frontera edo mugako pertsonaia legez kokatzen eta erakusten du bere burua” (Atutxa, 2010); beraz, esan liteke periferiatik aritu zaigula Borda sarri. Hark egindako itzulpenei dagokienez ere, hautatutako autoreak periferiakoak izan dira askotan (Maria Merçe Marçal, esaterako). Bordak berak idatzitakoaren eta hark egindako itzulpenen arteko harremana hobeto ulertzeko, bereiz aztertuko ditugu haren bi alderdi horiek (idazlearena eta itzultzailearena). Bordaren poesia itzulpenaren atzean dauden arrazoiak ikusi eta itzulpen horiek literatur sistemari izan lezaketen inpaktua aztertuko dugu atal honetan.

#### 4.1.1 Itxaro Borda idazle

“She is the most prolific creative writer of the French Basque Country; she stands out as the most prolific woman writer of Basque literature. Yet she remains utterly marginal to both the general public and most contemporary accounts of Basque literature.” (Gabilondo, 2000)

Nola liteke gure idazle esanguratsuenetako bat sistemaren periferian egotea? Atutxaren honako hitzok adierazten duten bezala, Bordak berak kokatzen du bere burua mugan, periferian: bai gizartearenean, bai literatur sistemarenean ere. Gehitu liteke, euskal gizartearen arau hegemonikoen isla den heinean, literatur sistemak berak uzten duela bazter idazlea, hain zuzen ere arau horiei egokitzen ez zaielako. Halere, idazkien bitartez arau horiek hausten edo gutxienez arau horiek egon badirela erakusten saiatzen da Borda, nazio berri bat taxutzeko.

“Mugalerro bat planteatzen zaigu: poemako ahotsa ez da haiek. Haiek eliza, militarrek, zementuzko sistemak, apaiz eta emakume kanonikoen euskal Herria. Eta binomioaren alde ilunean zehar nortasun baten bilaketarekin egiten dugu topo. Bordaren obra poetiko osoa zeharkatzen duen identitatearen bilaketa, zeinak ez dien nazionalismo hegemonikoen aginduei, nahitaezko heterosexualtasunari edota genero hierarkiei erantzuten.” (Atutxa, 2010)

Identitate literario baten bilaketa horretan, Gabilondok “melancholic migrant” (2000) izendatu zuen Borda, eta honakoa gehitu zuen: “melancholic migrancy (...) defies nationalism's articulation of "home" while it produces an alternative "nation" that is situated both locally and globally through cultural hybridation.” (Gabilondo, 2000). Ondorioz, Itxaro Bordaren identitate literarioaren bilaketak zerikusi zuzena du itzulpenarekin, eta haren identitatea osatzeko itzuli duela ere esan liteke. Esan dugun moduan, erdigunekoak ez diren autoreak euskaratu ditu Bordak, eta horren atzean Gabilondok aipatzen duen “nazio” edo “kultura alternatibo” hori sortzeko saiakera egon liteke.

Esan liteke, beraz, euskal literaturan topatu ez dituen erreferentziak erdaretan topatu eta ekarri egin zituela Bordak, hibridazio kultural horren baitan.

#### 4.1.2 Itxaro Borda itzultzaile

“Publikoki onartua ez den hizkuntza batean izkribatzeak, bortxaz itzultzaile bilakatzen gaitu.” (Borda, 2001)

Kasu horretan hizkuntzaz ari den arren, esan liteke bere izaera periferikoak, hau da, euskal literatur sistemaren arauetatik at ibiltzeak (nazionalismo eredu jakinetatik at, heteroarauetik eta hegoaldearen gailentasunetik at) bihurtu duela Borda sarri itzultzaile. Itzulpenak euskal idazleen “bakardade kulturala erlatibizatzen” zuela zioen (Borda, 2001), eta gaineratu liteke, bere kasuan, bakardade kultural hori ez dela soilik hizkuntza gutxituan idazteagatik sortu; aitzitik, norma zurrunez araututako gizartearen barruan normatik kanpo bizitzea ere “bakardade kulturala” izan liteke, eta, beraz, itzulpena horri aurre egiteko tresna. Gauzak horrela, bakardade hori arinduko zioten erreferentziak ekarri izan dizkigu Bordak.

“(…) aise ikus daiteke Itxaro Bordak bere gustu eta balioekin bat datozen autoreen lanak itzuli ohi dituela, mendeetan zehar Euskal Herriko eta Mendebaldeko literaturen kanonetan lekurik apenas izan duten testuak, besteak beste emakumeenak, hizkuntza gutxituetan idazten duten autoreenak, Mendebaldeko literatur kanonetik aparte samar dauden literaturetako idazleenak, emakumetasunaz, feminismoaz eta lesbianismoaz dihardutenak...” (Jaka, 2015)

Beraz, Bordak bere identitate literarioa osatzeko eta emakume, lesbiana, iparraldeko... izanik sentitzen zuen bakardade kulturala erlatibizatzeke itzuli izan duela esan genezake. Ekimen indibidualez itzuli du, bere identitateak literaturan sumatzen zituen hutsuneak beteko zituen erreferentziak hautatu eta gure polisistemara ekarriz. Even-Zoharrek aipatzen zuen “lack of repertoire” (1990) horri aurre egiteko baliatu du Bordak itzulpena:

“Euskal literatura eta euskal itzulpengintza mende luzez elite boteredun katoliko eta patriarkal baten gidaritzapean egon direla jakitun, Bordak itzulpena darabil elite horrek ezarritako kanonaren aurka egin eta duela gutxi arte euskaraz irakur ezin zitezkeen autore, obra eta gaiak euskal irakurleari eskaintzeko.” (Jaka, 2015)

Gaineratu liteke, “lack of repertoire” hori ez duela soilik literaturan identifikatu; aitzitik, gizartea eraldatzeko beharra ere ikusi du Bordak, eta eraldaketa hori itzulpenaren bidez egin du, hein batean.

## 4.2 Munduko Poesia Kaierak

Aurreko atalean ateratako ondorioetan areago sakontze aldera, 2014an abiatu zen Munduko Poesia Kaierak egitasmoaren atzean zer dagoen jakitea ezinbestekoa iruditu zaigu. Izan ere, etorkizunera begira poesia itzulia argitaratzeko euskarriak garrantzia berezia izan lezakeela aurreikusi dugu ondorioetan, eta Munduko Poesia Kaierak da euskarara itzultitako poesia argitaratzen duen bilduma bakarra.

### 4.2.1 Bildumaren ingurukoak

**Munduko Poesia Kaierak** Susa argitaletxeak abiarazitako proiektua da, eta Beñat Sarasola du zuzendari. Urtero sei ale argitaratzen ditu bildumak, hiru udaberrian eta hiru udazkenean. 2016ko martxoan argitaratutako aleekin, beraz, 15 argitaratu dira guztira.

Orain arte euskaratutako autoreak honako hauek izan dira: Aime Cesaire (Martinika), Maria Merçe Marçal (Katalunia), Georg Trakl (Austria), Miguel Hernández (Espainia), Carlos Drummond de Andrade (Brasil), Emily Dickinson (AEB), Gabriel Ferrater (Katalunia), Sophia de Mello (Portugal), Anne Sexton (AEB), Jorge de Sena (Portugal), Eugenio Montale (Italia), Ingeborg Bachmann (Austria), Audre Lorde (AEB), Angel González (Espainia) eta Paul Celan (Errumania-Alemania).

Jatorri ezberdinetako idazleak dira, baina mendebaldekoak gehien-gehienak (jatorrizko hizkuntzei erreparatuta batez ere), eta herrialde bat baino gehiago errepikatzen da. Idazleen generoari dagokionez, euskaratutako poesia baino orekatuago dago bilduma: 15etik 6 autore dira emakumeak.

Jatorri ezberdinetako idazleak dira denak, eta ez soilik herrialdeari dagokionez: batzuk sistemaren erdigunetik datozkigu (Emily Dickinson, esaterako), eta beste batzuk kanonaren periferiatik (Maria Merçe Marçal).

Itzultzaileak, berriz, honako hauek: Anjel Lertxundi, Angel Erro, Josu Landa, Iñigo Roque, Nagore Tolosa, Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Xabier Montoia, Gerardo Markuleta, Danele Sarriugarte, Rikardo Arregi, Haritz Galarraga, Koldo Izagirre, Iñigo Aranbarri eta Anton Garikano.

Itzultzaileen txatala idazleena baino interesgarriagoa iruditu zait nire ikerketa lanari begira: hasteko, nabarmentzekoa da gehienak idazleak direla edo momenturen batean

sormenezko lanen bat plazaratu dutela. Halaber, generoari erreparatuta, 3 itzultzaile emakume baino ez ditugu topatzen. Beraz, desoreka hori oraindik ere mantendu egiten da 2014an abiarazitako bilduma horretan.

#### 4.2.2 Beñat Sarasolarekin elkarriketa

Bildumaren inguruko azterketa laburra egin ostean, Beñat Sarasolarengana jo dugu hainbat alderdiren inguruan sortutako zalantzak argitze aldera. Harekin bildu, eta honako puntu hauen inguruan egin genizkion galderak:

- *MPKren sorrera eta helburuak.*
- *Kanonaren pisua bilduman eta periferiak hartzen duen espazioa.*
- *Itzultzaile eta idazleen generoa.*
- *Bildumaren eklektikotasuna.*
- *Itzultzaileen hautaketa eta itzultzaileen idazle izaera.*
- *Itzulgaien hautaketa.*

Sarasolaren erantzunak bildu ditut jarraian:

Koldo Izagirrereren “XX. mendeko poesia kaierak” izan zuen inspirazio iturri MPK bildumak. Izagirrerenean, 40 aletan beste hainbeste euskal poetaren lanak bildu ziren, eta horiek kaleratu ostean amaitu zuten lana. Aitzitik, haren hastapenetatik MPKren asmoa mugarik izango ez zuen bilduma iraunkor eta egonkorra egitea izan da; ale kopuru jakina, beraz, ez da muga.

Bildumak harpidetzen bitartez funtzionatzen du. 300 aleko tiradak egiten dira, eta gutxi gora behera erdia harpidedunei bidaltzen zaie. Harpidedunek ordaintzen dituzte kostu editorialak, dendetan ez baitira ale asko saltzen. Harpidedunei esker da, beraz, bilduma hau posible.

Helburu nagusia corpus poetiko itzulia osatzea izan da. Corpus horren parte izango diren autoreak hautatzeko irizpideak ez dira oso murriztaileak: XIX. mende erdialdetik aurrerako autoreak izango zirela hautatu zen, ahalik eta tradizio literario ezberdinenetakoak izango zirela, eta (haien tradizio literarioan gutxienez) kanonikoak. Beste baldintza bat ere bada: autoreak hila behar du.

Halere, kanona irekitzeko saiakera ere egin du bildumak, hori baitzen beste helburuetako bat. Hau da, ez du kanona mendebaldeko gizon zuriez osatutako corpus gisa ulertzen. Gauzak horrela, Emily Dickinson eta Audre Lorde, esaterako, batera daude bilduma honetan. Bata, poesia amerikarrean kanonikoenen artean dago; bestea, kritika feministari esker berreskuratu du kanonak, duela gutxi.

Sarasolaren ustetan, ordea, MPK ez da periferiako edo bazter-bazterreko poesia itzultzeko plaza. Hau da, bere ustetan autoreak ezaguna izan behar du bere tradizio literarioan gutxienez. “Ez badugu oraindik X euskaraz, bilduma honetan ezin gara hasi ez dakit nongo autore ezezagunak itzultzen” (Garcia, 2016). Horretarako, beste espazio batzuk sortu beharko lirateke, beraz.

Sarasola eta MPKren inguruan dabilzanak kontziente dira bildumaren indar kanonizatzaileaz. Euskaratutako poesia hain urria izanik, eta are gutxiago bilduma berean bildutako poesia itzulia, jakin badakite euskal polisistemara ekartzen den edozerk oihartzuna izango duela, bai eta eragina ere. Sarasolak dioenez, balitekehemendik pixka batera bildumak poeta gazteengan izan duen eragina ikustea (Garcia, 2016).

Itzultzaileen hautaketa eta lanari dagokionez, Sarasolak dio hasiera batean Susaren inguruko lagunengana jo zutela, bai baitzekiten hainbatek bazutela zerbait itzulia: lehenengo aleetan, beraz, indibidualki lan egin zuten itzultzaileei haien lana argitaratzeko medioak eman zizkieten (Borda, Garikano, Aranbarri).

Hortik aurrera, itzultzaile posibleren batengana hurbildu izan da Sarasola pertsonalki, eta normalean itzultzaileari berari eskatzen dio idazlea proposatzeko. “Poesia itzulpena oso oso pertsonala da, eta beraz, itzultzaileak gustuko izan behar du” (Garcia, 2016). Enkargua ordaintzeko aurrekonturik ez dagoela eta, “militantzia poetikoagatik” itzultzen du itzultzaileak; beraz, ulertzekoa da itzulgaia hautatzen uztea. Gainera, antologia bera itzultzaileak osatzen du.

Itzultzaile gehienek idazle izaerari dagokionez, Sarasolak argudiatzen du itzultzaile diren asko ez direla poesiarekin ausartzen. Narratiban ez bezala, non itzultzaileak diren orokorrean itzulpen lana egiten dutenak, poesiaren kasuan nahiko ohikoa da idazleak topatzea (ikusi 3. atala). Baliteke idazleek entrenamendu gisa erabiltzea itzulpena, edo Itxaro Bordak esan zuen moduan euskaraz topatu ez dituen erreferentziak edukitzeko



(ikusi 4.1 atala). Euskarri finko eta sendo batean bilduta egon arren, ekimen indibiduala izaten jarraituko luke, beraz, poesia itzulpenak zentzu horretan.

Emakumezko itzultzaileen presentzia eskasari dagokionez, Sarasolak dio ohartzen direla desorekaz. Proiektuaren hasieran Susaren inguruko jendearengana jo zuten, eta gehienak gizonezkoak ei dira. Ondorioz, “naturalena” gizonezkoengana jotzea izan zela dio. Gaineratu du euskal itzultzaile “kanoniko” gehienak gizonezkoak direla, eta horrek ere izan lezakeela eraginik. Euskal mundu editoriala eta itzulpena oso maskulinoak dira oraindik ere.

Halere, belaunaldi berrietan emakume gehiago daudela dio, eta emakume horiek aukeratzen dituzten idazleak berdintsuak direla: emakume idazleak, aldarrikatzaileak, kultur-egoera gutxitukoak (beltzak, adibidez). Itzultzaileen eraginak, zentzu horretan, bildumari aniztasuna ematen diola azaldu du, eta itzultzaileen aukeren eskutik helduko dela aldaketa, bai eta kanonikotasun klasiko eta maskulinitik aldentzea ere.

Itzultzaile berri eta gazteentzako plaza gisa ere ikusten du Sarasolak bilduma. “Susaren poesia bilduma poeta gazteak argitaratzeko lekua izan da, itzultzaile berrientzako ere izan liteke MPK” (Garcia, 2016).

### **4.3 Laugarren ataleko ondorioak**

Hirugarren puntuko analisisa sakonago ulertzea zen puntu honetan azaldu ditugun bi ereduak aztertzearen xedea.

Periferiaren periferiatik aritzen den Borda aztertu ostean, argi eta garbi ikus daiteke ekimen indibidualez itzultzea ariketa literario hutsa baino gehiago dela. Idazlea periferian dagoenean, haren errealitate eta identitate-literarioaren antzekoak bilatuko ditu beste hizkuntzetan, erreferentziak behar dituelako. Bordaren kasuan, haren emakume izaera da, besteak beste, euskal literatura maskulino eta heteroarautu baten gunetik at kokatzen duena. Ondorioz, argi geratzen da poesiaren euskal itzulpenaren laginean emakumeen kopurua urria izateak baduela eraginik idazle batzuen jardunean. Bordaren kasuan, esaterako, itzultzera bultzatu du horrek. Halere, ez genuke pentsatu behar beste sistemetako idazle periferikoak ez itzultzeak gure sistemaren periferian dauden idazleei soil-soilik eragiten dienik, hau da, gure kasuan, emakume gutxi itzultzeak ez die soilik emakumeei eragiten; aitzitik, gure ustea da itzultzen ez denak ere bermatzen duela polisitemaren zentroan dauden idazle horiek beren lekuari eustea.

Beraz, gizarte patriarkalaren eredia poesia itzulpenean erreproduzitzeak sistema horren baitan dauden guztiengan du eragina, zuzenean nahiz zeharka.

Bestalde, Munduko Poesia Kaierak bildumaren azterketatik hainbat ondorio atera litezke: alde batetik, oso ekimen positiboa da, nolabaiteko “isolamenduan” egiten den jarduerari euskarri finko eta iraunkorra eskaintzen diolako. Halako bilduma osatu bat gurean edukitzea oso mesedegarria da euskal literaturarako, eta eragin nabarmena izango duela aurreikusten dugu.

Bestalde, bilduman emakumeek (idazle zein itzultzaileek) duten presentziari erreparatuta, eta nahiz eta desoreka gutxitzeko ahaleginak egin, uste dugu nahiko arriskutsua dela genero-kontuetan egin beharreko aldaketa hori itzultzaileen esku uztea, eta desoreka sistema maskulino bati egoztea. Itxaro Bordarena bezalako ekimenak txalogarriak diren arren, eta euskal literaturan ezbairik gabe eragina duten arren, generoarena kontuan izan beharreko irizpidea izan beharko litzateke bildumarentzat, are gehiago jakinda haren ahalmen kanonizatzailea handia dela. Halere, bilduma batek ez du sistema errotik aldatzeko ahalmenik, eta positiboagoa litzateke halako euskarri gehiago sortzea (Interneten, aldizkarietan...), desoreka hori aktiboki gutxitzeko.

## 5. Periferiaren periferiatik ekarritako poesia: June Jordan

Hirugarren eta laugarren puntuetan egindako analisiaren ostean, zilegi iruditu zaigu euskaratutako poesiari gure ekarpen txikia egitea. Hala, June Jordan idazle estatubatuarra itzultzea erabaki dugu, haren literatur sistemaren periferiatik gurera ekartzea. Hautaketa guztiz pertsonala izan da, itzultzaileak gure sistemaren hutsuneak xumeki betetzeko egindako saiakera. Jarraian, itzulpen lanaren nondik norakoak azalduko ditugu.

### 5.1 June Jordan

June Millicent Jordan (1936-2002) New York hiriko Harlem auzoan jaio zen, guraso Jamaikarren altzoan. Bost urte zituela Brooklynera joan ziren bizitzera, eta bertan hazi zen Jordan. Goiz ernatu zitzaion poesia idazteko nahia, 7 urterekin. Etxeko giroa ez zen beti samurra izan: aitak nolabaiteko tratu txarrak ematen zizkion, eta amak bere buruaz beste egin zuen oraindik nerabea zela.

Aktibista sutsua izan zen Jordan bizitza osoan: feminista, *civil rights movement*eko kide, gerra eta arrazakeriaren aurkako mugimenduko partaide, eta gay eta lesbianen eskubideen aldekoa (bere burua bisexualtzat jotzen zuen). Haren lanek bizi zuen errealitate gordina salatu eta aldatzeko ahalegina egiten dute; hala, arrazakeria, matxismoa, indarkeria, kolonialismoa eta bortxaketak sarri ageri dira Jordanen poemetan. Beraz, hainbat arrazoiengatik izan zen Jordan periferikoa, baina argi dago haren bizi-baldintzek zerikusi zuzena izan zutela. Gaur egun, feminismoaren teoriari egindako ekarpena handia izan zela uste da, eta erreferente bat da AEBn.

1969an argitaratu zuen lehen lana, *Who Look at Me* haurrentzako poesia-liburua; haren atzetik beste 25 saiakera- eta poesia-lan: besteak beste, *Soldiers: A Poet's Childhood* memoriak, *Passion* edo *Kissing God Goodbye* poema liburuak, eta *Some of Us Did Not Die* saiakera bilduma.

Californiako Unibertsitateko irakasle izan zen Berkeley-n, eta bularreko minbiziak jota hil zen bertan, 2002an.

Haren lanak beste hizkuntzetara itzuli diren arren, kosta egin zaigu informazio hori topatzea. Index Translationum-en adibidez, ez dator itzulpen bakar bat ere. Ondorioz, biblioteka nazionaletara jota jakin dugu haren liburu bana itzuli dela espainolera

(*Dificultades técnicas: ensayos políticos*) eta alemanera (*Abschiedskuß für Gott*). Horrez gain, Argentinako *Harlem: los blues de la historia. 56 poemas, un siglo de poesía* antologian ere ageri da Jordan. Frantziako biblioteka nazionalan ez zaigu lan itzulirik azaldu. June Jordanen web orrian<sup>9</sup> begiratuta, haren hainbat poema bengalerara ere itzuli direla ikusi dugu. Beraz, ikusten denez, ez da munduko hizkuntza nagusienetara ere asko itzuli, eta beraz, beste hizkuntzako itzulpenen erreferentziarik ere ez dugu.

Euskarara Jordanen poema bakarra itzuli da: *Poem About My Rights*. Ane Garciak, lan honen egileak, itzuli zuen 2015eko Literaturian egin zen poesia azpitutatzeko tailerrera. Armiarmaren “Literatur Emailuak” atalean dago ikusgai bideoa itzulpenarekin<sup>10</sup>.

## 5.2 Poemaren analisia

*Passion* (1980) liburitik ateratakoa da *Poem for Nana*. Liburu berean Jordanen beste poema ezagun batzuk ere aurki ditzakegu: *Poem for South African Women* edo *Poem About My Rights*, esaterako. Poemen izenburuek jada salatu egiten dute Jordanen eta haren poesiaren izaera aldarrikatzailea (*Poem About Police Violence*, *Poem of Personal Greeting to Fidel*, *A Song of Sojourner Truth* edo *Rape Is Not a Poem*). Liburuaren hitzaurrean literatura kanonikoa kritikatu eta Walt Whitmanen irudia goraipatzen du, haren bidetik segitu nahi duela esanaz.

### 5.2.1 Egitura

Esku artean dugun poema 9 ataletan banatuta dago. Atal bakoitzak luzera ezberdina du eta gai ezberdinak jorratzen ditu. Halere, zatien arteko loturak sarri nahiko sotilak izan arren, osotasunaren parte bezala ulertu behar ditugu, eta lotura horiek euskarara ekartzean islatzen saiatu. Izan ere, Jordanek errealitate poliedriko bat aurkezten digu zatietako bakoitzean: indibiduoaren ikuspuntutik unibertsaltasunera garamatza etengabe.

---

<sup>9</sup> <http://www.junejordan.com/>

<sup>10</sup> <http://www.armiarma.eus/emailuok/?p=8187>

### 5.2.2 Gaiak eta erreferentzia kulturalak

June Jordanez mintzatu garenean, adierazi dugu haren lanak aldarrikatzaileak izan ohi direla. *Poem for Nana* ez da inolako salbuespena: gai orokorrak lantzen ditu poema honetan, eta salaketa zehatzak ere ageri dira. Ondorioz, erreferentzia kultural ugariarekin egiten dugu topo. Hona hemen poemak ageri diren gaien zerrenda:

- AEBko mendebaldearen mitoa eta konkista. Identitateak: Cowboy ikonikoa (“all this filmstrip territory/all this cowboy sagaland:/not/ a single Indian/ in sight”) vs. indiarren egiazkotasuna/purutasuna (“the people of the sacred trees/ and rivers precious to the stars that told/ old stories to the night”).
- Nazioarteko politika eta ekologia (“40,000 gallons gushing up poison/from the deepest seabeds/ every hour/ 40,000 gallons/ while/ experts international/ while/ new pollutants/ swallow the unfathomable”)
- Jatorriz bertakoak ziren biztanleen sarraskia. Jazoera zehatzen salaketa: Anna Mae Pictou Aquash<sup>11</sup> eta Trail of Broken Treaties<sup>12</sup> (“Anna Mae Pictou Aquash/ slain on the Trail of Broken Treaties/ bullet lodged in her brain/hands/ and fingertips dismembered”)
- Emakume izaera: esperientzia indibiduala (“I am a woman searching for her savagery/ even if it’s doomed”), eta ahizpatasun edo kolektiboaren beharra (“as when I accept my sister dead/ when there should be/a fluid holiness/ of spirits wrapped wound the world/ redeemed by women/ whispering communion”).

---

<sup>11</sup> Anna Mae Pictou Aquash (1945-1975) Canadako *First Nations* delakoetako aktibista izan zen. 1960an Bostonera lekualdatu eta *American Indian Movement*eko kide izatera pasa zen. Hainbat protestatan parte hartu ostean, 1975ko abenduan desagertu eta hiru hilabete geroago hilda agertu zen Hego Dakotako erreserba batean. Badirudi exekutatu egin zutela.

<sup>12</sup> 1972ko udazkenean Estatu Batuak zeharkatu zituen protesta. *American Indian* eta *First Nations* erakundeek antolatu zuten, eta indiarrek zituzten arazoan gainean arreta erakartzea zen helburua. Inoizko indiarren bilkurarik handiena izan zen.

### 5.2.3 Estiloa

Jordanen beste hainbat poema irakurri ondoren<sup>13</sup>, esan daiteke oso estilo partikularra duela idazleak. Hasteko, ez darabil ia puntuazio markarik (bi puntuak eta galdera-ikurrak bai, baina komak eta puntuak ez dira ia ageri), eta horrek zailtasunak eman dizkigu testua ulertzeko, baina batez ere itzulpen unitateak identifikatzeko. Hona hemen adibide bat:

“Memory should agitate  
the pierced bone crack  
of one in pushed-back horror  
pushed-back pain  
as when I call out looking for my face  
among the wounded coins  
to toss about  
or out  
entirely  
the legends of Geronimo  
of Pocahontas  
now become a squat  
pedestrian cement inside the tomb  
of all my trust”

Ondorioz, testua behin eta berriz irakurri beste erremediorik ez dugu, kontzeptu eta elementu sintaktiko bakoitzak gainerakoekin duen harremana ulertu edo susmatu arte. Kasu batzuetan, ia ezinezkoa da hainbat elementu beregainak diren edo ez argi eta garbi ikustea. Honako kasu honetan, esaterako, ezin dugu jakin erlatibozko esaldi baten aurrean gauden ala ez:

“(…)and fingertips dismembered  
  
who won the only peace  
that cannot pass  
from mouth to mouth”

---

<sup>13</sup> *Passion* liburuko hainbat poematan ere ikus daiteke Jordanen estiloa halakoa dela. Adibidez, *Poem for South African Women* edo *Poem About My Rights*.

Horrez gain, aipagarria da Jordanek esaldien edo ahapaldien egiturak errepikatzeke duen joera. Hitz bakarra txertatuz 2 edo 3 ahapaldi lotzen ditu:

“Memory should agitate  
the pierced bone crack  
of one in pushed-back horror  
pushed-back pain  
as when I call out looking for my face  
among the wounded coins  
to toss about  
or out  
entirely  
the legends of Geronimo  
of Pocahontas  
now become a squat  
pedestrian cement inside the tomb  
of all my trust

as when I feel you isolate  
among the hungers of the trees  
a trembling  
hidden tinder so long unsolicited  
by flame

as when I accept my sister dead  
when there should be  
a fluid holiness

Azkenik, esan behar da Jordanek esaldi oso luzeak erabiltzen dituela, ingelesak eskaintzen dituen baliabideak (erlatibozko esaldiak, preposizioak) baliatuz. Galdera erretorikoak ere ageri dira (“*where are the indians?*”).

Oro har, esan genezake hizkuntza indartsua eraikitzen duela Jordanek elementu horien konbinazioarekin. Irakurleari diskurtso sakon eta boteretsua iristen zaio.

#### 5.2.4 Poesia itzultzeak eragindako zailtasunak

Atal honetan, izandako zailtasunak baino ez ditut aipatuko. Nahi beste sakondu liteke arazo bakoitzean, baina lan honek bestelako helburuak ditu. Jordanen estilo bereziaz gain, alde batetik ingelesak berezko dituen hainbat ezaugarri itzulpena zaildu

digute, eta bestetik, euskaraz hizkera poetiko baliokidea sortu beharrak ere beste era batera lan egitera bultzatu gaitu.

Hasteko, ingelesa hitz monosilabo ugari dituen hizkuntza da, eta horrek erritmoan du eragina: hizkuntza trinkoa da, silaba gutxi asko esaten du. Euskarak, ordea, hitz luzeak ditu orokorrean, eta beraz, erritmo bizi eta trinko horri eustea zaildu digu.

Bereziki zaila iruditu zaigu ingelesezko lokailuak edo esaldien arteko loturak erreproduzitzea. Ingelesez, lokailu edo partikula horiek ez diote esaldiari eragiten, ez dituzte esaldiko hitzak eraldatzen (“**as when** I accept my sister dead”). Aldiz, euskaraz esaldi osoa lokailu horren mendeko bihurtzen da (“nire ahizpa hilda hartzen **dudanean lez**”). Poemaren analisisan aipatu bezala, egitura hori hiru aldiz agertzen da, eta euskaraz aditza deklinatu behar horrek lausotu egiten du ingelesez argi geratu den egituren errepikapen hori.

*Phrasal verbs* delakoek ere eman digute buruhauste bat edo beste: bi kasutan, idazleak aditz bera darabil eta preposizioa aldatzen du (*follow after* eta *follow into*, *toss about* eta *toss out*). Poesia itzultzerakoan, kontuan izan behar dugu ez dagoela ausazko hitzik, hitz bakoitza eta horren konnotazioak zerbaitengatik hautatu dituela idazleak. Kasu horretan, preposizioek esanahi aldaketa sotila dakarte, baina bi esanahi ezberdin direla markatu beharko dugu euskaraz, eta ingelesez duten erro berbera nolabait islatu.

Euskaraz genero markarik gabeko izenordainak edukitzea ere arazo izan da kasu batean, Anna Mae Pictouri buruzko pasartean hain zuzen. Geroago nori buruz ari garen argi gera dadin saiatu gara, izenordainak ingelesez ematen digun informazioa konpentsatzeko.

Azkenik, erlatibozko esaldiek emandako arazoak aipatuko ditugu. Esaldi mota hori euskarara itzultzea beti izaten da arazotsua, eta kasu honetan ere hala izan da. Hitzen ingelesezko hurrenkera mantendu edo ez, hori izan da zalantza nagusia. Kasu batzuetan, Jordanen idazkera nahasi samarra suertatzen da eta gure hautuak esaldiei zentzua ematearen aldekoak izan dira.



### 5.3 Poemaren itzulpena

#### Poem for Nana

Zer egingo dugu  
ez daukagunean inor  
hiltzeko?

\*

40 000 petrolio galoi bor-bor  
ozeanora  
baina ni  
hegi honen gailurrean eserita  
Pazifikoaren gainean  
loreen kolorea egiaztatzen  
Kaliforniako mitxoleten laranja  
beroak hartu nau  
eta nire golkorako diot

*Non dira indiarrek?*

filmeen lurralde zabalean  
cowboy saga-lurraldean  
Indiar  
bakar bat  
ere ez  
begi bistan

40.000 galoik pozoina bor-borrean  
itsasoaren sakonenetik

orduro

40.000 galoi

artean

nazioarteko adituak

artean

kontaminatzaile berriak

neurtu ezin dena irensten

halere:

*Indiarrik ez.*

tinko begiratzen dut ingurura

itsasoaren leiho ditudan

arrosa eta mitxoleta eta hegitik haratago

so egiten diot

akiduraz amore emanda

susmobako

ia hutsal datzan

Pazifiko zabalari

Nire basatasunaren bila nabilen emakumea naiz

alferrik izan arren

*Non dira Indiarrak?*

\*

Bele Sudur

Hartz Txiki

Neska Lirain

Altze Beltz

Azeri Sabel

Zuhaitz sakratu eta izarpeko

ibai preziatuen jendea

gauari istorio zaharrak kontatzen zizkion jendea

*nola hartuko dugu guk zuen bidea?*

mara-mara

elurra sutondoaren aurretik

eta gizonak bufaloak ditu

anai

*nola jarraituko dugu zuen bidetik?*

\*

Buruz behera aurkitu zuten

dantzan behar zuen lekuan

txorien

hegaldia

isiltzen duten

itzalezko danborren doinuan

Geldi aurkitu zuten bere gorputza

izotzak

deuseztatu ziola bizitza

nire bizitza garrak hartuta suntsitzeko

Anna Mae Pictou Aquash

*Trail of Broken Treaties*-en erahila

bala bat buru/eskuetan sartuta

eta hatzak sakabanatuta

nork irabazi du

ahoz aho pasa ezin den

bake bakarra

\*

Memoriak hautsi arte astindu beharko luke

norberaren hezur zulatua ukatutako ikaraz

ukatutako minaz

zauritutako txanponetan

nire aurpegia aurkitu nahirik

oihu egin dudanean lez

botatzeko

bueltatzeko

osorik

Geronimo eta

Pocahontasen kondairak

okupak dira orain

espaloietako porlana

nire konfiantza guztiaren zerraldoaren barruan

zuhaitzen goseen artean ezkutatuta

isolatuta sumatu zaitudanean lez  
suak luzaroan  
eskatu gabeko pizgarri  
dardari

Nire ahizpa hilda jaso dudanean lez  
elkartasuna xuxurlatzen duten  
emakumeek askatutako  
munduko espirituen  
santutasun emari behar zuenaren orde.

\*

Zure bizkarrezurrari segika topatu dut nire bidea

Zure bihotza banaezina nire egiazko asmoagandik  
guk  
behartu genuen ilargia arratsera makur zedin  
esan zenuenean, “Ez,  
ez dut zure eskua  
askatuko.”

\*

Orain alde guztietara eramango nauen itsasaldi baten bila nabil urpean

sakonean  
Pazifiko leunak hondatzen du  
lurraren gerriko more  
hunkiezina

\*

Iaz Hegoafrikako Justizia Ministroak  
esan zuen Gobernuaren Aurkako Istiluak  
Mundu Mailako Moda baten parte zirela  
Ezarritako Ordena Kultural eta Politikoa  
Eraisteko

\*

Hala bedi!

#### **5.4 Bosgarren ataleko ondorioak**

Itzulpen lan hau burutzea ezinbestekoa iruditu zaigu gure lana borobiltzeko, hainbat arrazoiengatik. Hasteko, esperientzia pertsonalak hirugarren eta laugarren atalean sortu zaizkigun susmo batzuk geure azalean egiaztatzeko balio izan digu. Poesia ekimen indibidualetatik abiatuta itzultzen dela esan dugu, eta itzulpen ariketa egiten ari ginela ikusi ahal izan dugu poesia, poeta eta poemekiko norberak duen lotura guztiz pertsonala dela. Behar-beharrezkoa da poema gustatu eta harekin nolabait “identifikatzea” itzulpen lan ona egiteko. Horrekin batera, ondorioztatu dugu norberaren abilezia poetikoa lantzeko ariketa paregabea dela poesia itzultzea, eta beraz, poeta askok itzulpena horretarako baliatzea ez litzake harritzekoa.

Itzulpen lanari berari dagokionez, ingeles>euskara konbinazioarekin lan egitean sortu ohi diren arazoez gain, poemaren estilo konkretuari arreta jartzen saiatu gara, eta Jordanen estilo pertsonala euskaraz ematen. Horretarako, oso lagungarri egin zaigu Jordanen beste lanak irakurri eta haren inguruan zertxobait ikertzea.

Poeta hau ez dago apenas itzulita, baina June Jordan itzuli ahal izateko oso lagungarri suertatu zaigu euskarazko hainbat emakume poetaren lanak irakurtzea, Amaia Lasa eta Itxaro Bordarenak, esaterako (1984, 2010). Halere, gure iritziz, beste literatur itzulpen batzuk burutzean baina erreferentzia gutxiagorekin lan egiten da poesia itzulpenean, generoaren posizio periferikoa dela medio. Are gehiago itzuli beharreko autore periferikoa bada, gure kasuan bezala; horrelakoetan hizkuntza poetiko hori sortu egin behar izaten du itzultzaileak.

## 6. Ondorioak

Aurreko atal bakoitzean ondorio zehatzagoak ateratzen joan garenez, ondorio nagusi hauetan aurreko atalek bata bestearekin duten harremanari dagozkion ondorioetan zentratuko gara.

Hasteko, poesia itzulpenaren “osasun egoerari” dagokionez, esan liteke, 1980ko hamarkadatik honako ibilbidean, euskaratutako poesia ez dagoela momenturik txarrean. Besteak beste, Munduko Poesia Kaierak bildumari esker, esan liteke nolabaiteko sona lortu duela poesia itzuliak gurean: liburuak argitaratzen direnean egunkarietan agertzen da, liburuen inguruko errezitalak egiten dira... Zentzu horretan, bilduma horrek erakusten du poesia itzulia argitaratzeko euskarrien hautaketa erabakigarria dela, itzulpenen hedapena bermatzeko.

Periferian egiten den jarduera bati halako plaza eskaintzea oso positiboa da, eta orain arte gurean ezezagunak ziren hainbat idazle aurkeztu dizkigu. Gainera, bildumak poesiaren polisistemaren zentrorra hurbildu du itzulpena, eta “it participates actively in shaping the center of the polysystem” (Even-Zohar, 1990); botere kanonizatzailea hartu du, beraz.

Katalogotik ateratako laginaren analisiak argi utzi du poesia itzulpena jarduera periferikoa dela. Hasteko, gutxi argitaratu eta itzultzen delako poesia, eta bigarrenik, zer itzuli den ikusita, modu ausazkoan egin izan den jarduna delako. Halaber, kasu honetan idazleen presentziak ere zeresan handia ematen du, idazle-itzultzaileen kopurua ez baita horren handia beste literatur genero batzuetan. Badirudi testuarekiko lotura edo identifikazio hori handiagoa dela poesian, eta akaso horregatik itzultzen dutela idazle gehiagok. Poesia itzultzen pertsona asko aritu direla-eta, lagin eklektiko eta plurala iritsi zaigu gaur egunera; beraz, eta hori ere oso positiboa da, periferiari ere utzi diogu txoko bat gurean.

Halere, periferiaz ari garela, esan behar da emakumeek polisistemaren barruan hartzen duten leku urria esanguratsua dela, baita kezkarria ere. Euskal literaturan dabilzan emakume kopurua eta poesia itzuliaren bueltan dabilzanena antzekoa da, %5-%15 artekoa. Beraz, arazoa estrukturala dela esan genezake; hau da, gure polisistema bera bizi garen gizarte heteropatriarkalaren baitan dagoenez, poesia itzuliak ere eredu horiek erreproduzitzen dituela.

Haatik, Itxaro Bordak urratutako bidetik jarraitzea komeni zaigu belaunaldi berriei. Izan ere, hein handi batean 1980ko hamarkada hasieran Bordak identifikatu zuen “turning point” (Even-Zohar, 1990) horretan jarraitzen dugu, genero-ikuspegi batetik begiratuta bederen. Poeta gazteoi aurreko ereduak ez digute balio: ez gizarte-ereduak, ez eta literatur eredu klasikoak ere. Periferiatik ekin beharko genuke, atzerriko idazle periferikoak gurera ekarri eta eredu berriak geurean txertatu; poesia ereduak eraldatzeaz gain, gai berriak gizarteratuko genituzke horrela.

Poesia itzultzeari dagokionez, gure iritziz erreferentzia falta oso nabarmena da literatur genero hau itzultzerakoan; are gehiago idazle periferiko bat itzultzen ari bagara (June Jordanen kasuan bezala). Gainera, nolabaiteko isolamenduan egiten den ariketa dela eta, ez dago itzultzeko modu zuzenik edo jakinik: nahiko instintiboki egiten den jarduna da poesia itzulpena.

Ondorioekin amaitzeko, esan nahiko genuke euskarara itzultitako poesiak baduela erronkarik etorkizunera begira: hasteko, itzulpenak argitaratzeko euskarrien analisi bat egitea komenigarri uste dugu. Gaur egun, Internet ezin tresna egokiagoa litzake plataforma berriak sortzeko; izan ere, gure iritziz, euskarri bat baino gehiago edukitzeak aniztasuna mesedetuko luke. Horrez gain, katalogoaren analisia burutu ostean, uste dugu argi geratzen dela gizartearen alor honetan ere genero-ikuspegia txertatzea ezinbestekoa izango dela. Kanonikotasun klasikotik aldendu eta ahots berriak ezagutzeko plaza ere badelako poesia, eta periferiaren periferian emakumezko ahots asko daudelako zain.



## 7. Bibliografia

- Atutxa, I. (2010). "Itxaro Borda bestaldetik: mugaldeko identitate baten sorrera". In I. Egaña (arg.) *Desira desordenatuak: queer irakurketak (euskal) literaturaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae. 231-248. or.
- Borda, I. (1984). *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar zenbait*. Donostia: Txertoa.
- Borda, I. (2001). "Traditore ala?". *Hegats* 29, 25-29. or.
- Borda, I. (2010). "Itxaro Bordaren poema hautatuak". *Senez* 40, 1-26. or.
- Euskaltzaindia, ( - ). *Literatura Terminoen Hiztegia*.  
<[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&view=frontpage&layout=lth\\_list&Itemid=474&search=1&lang=eu](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_list&Itemid=474&search=1&lang=eu)>
- Even-Zohar, I. (1990). "The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem". *Poetics Today* 11:1, 45-51 or.
- Frost, R. (1969). *Dryden and the Art of Translation*. Yale: University Press.
- Gabilondo, J. (2000). "Itxaro Borda: Melancholic Migrancy and the Writing of a National Lesbian Self." *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of Basque linguistics and philology*. Bol.:34, zk.:2. (291-314. Or.)
- Garcia, A. (2016). Beñat Sarasolarekin elkarrizketa.
- Jaka, A. (2015). "Itxaro Borda, bortxaz itzultzaile". In Fernandez, B. eta Salaburu, P. (arg.) *Ibon Sarasola, gorazarre*. UPV/EHU.
- Jaka, A. (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Euskaltzaindia.
- Jimenez, I. (2011). "Dena da emakumea euskal literaturan". *Gara*.  
<<http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20111119/304375/eu/Dena-emakumea-euskal-literaturan>>  
Azken kontsulta-data: 2016/05/23
- Juaristi, F. (1995). "Hitzaurrea" in *Antologia: zenbait poeta katala*. Bizkaia: Ibaizabal Argitaletxea. 14. or.
- López Gaseni, M. (2009). "Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)", *Senez: itzulpen aldizkaria*. 37. zk. 299-311. or.

Manterola, E. (2011). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko aldaketa*. Gasteiz: EHU.

Sarasketa, A. (2002). “Poesiaren ondoeza”. *Euskaldunon Egunkaria. Begia gehigarria*.  
<[http://eibz.educacion.navarra.es/creibzw/baliabideak/ega/azterketak/irak\\_2002\\_01.htm](http://eibz.educacion.navarra.es/creibzw/baliabideak/ega/azterketak/irak_2002_01.htm)>

Azken kontsulta-data: 2016/05/29

Ubeda, G. (2014). “Zein toki du emakumeak euskal literaturan?”. *Argia*.

<<http://www.argia.eus/albistea/zein-toki-du-emakumeak-euskal-literaturan>> Azken kontsulta-  
data: 2016/05/25

## 8. I Eranskina: *Poem for Nana*

### Poem for Nana

What will we do  
when there is nobody left  
to kill?

\*

40,000 gallons of oil gushing into  
the ocean  
But I  
sit on top this mountainside above  
the Pacific  
checking out the flowers  
the California poppies orange  
as I meet myself in heat

I'm wondering  
*where's the Indians?*

all this filmstrip territory  
all this cowboy sagaland:  
not  
a single Indian  
in sight

40,000 gallons gushing up poison  
from the deepest seabeds  
every hour

40,000 gallons  
while  
experts international  
while  
new pollutants  
swallow the unfathomable  
still:

*no Indians*

I'm staring hard around me  
past the pinks the poppies and the precipice  
that let me see the wide Pacific  
unsuspecting  
even trivial  
by virtue of its vast surrender

I am a woman searching for her savagery  
even if it's doomed

*Where are the Indians?*

\*

Crow Nose  
Little Bear  
Slim Girl  
Black Elk  
Fox Belly

the people of the sacred trees  
and rivers precious to the stars that told  
old stories to the night

*how do we follow after you?*

falling  
snow before the firelight  
and buffalo as brothers  
to the man

*how do we follow into that?*

\*

They found her facedown  
where she would be dancing  
to the shadow drums that humble  
birds to silent

flight

They found her body held  
its life dispelled  
by ice  
my life burns to destroy

Anna Mae Pictou Aquash  
slain on The Trail of Broken Treaties  
bullet lodged in her brain/hands  
and fingertips dismembered

who won the only peace  
that cannot pass  
from mouth to mouth

\*

Memory should agitate  
the pierced bone crack  
of one in pushed-back horror  
pushed-back pain  
as when I call out looking for my face  
among the wounded coins  
to toss about  
or out  
entirely  
the legends of Geronimo  
of Pocahontas  
now become a squat  
pedestrian cement inside the tomb  
of all my trust

as when I feel you isolate  
among the hungers of the trees  
a trembling  
hidden tinder so long unsolicited  
by flame

as when I accept my sister dead  
when there should be

a fluid holiness  
of spirits wrapped around the world  
redeemed by women  
whispering communion

\*

I find my way by following your spine

Your heart indivisible from my real wish  
we  
compelled the moon into the evening when  
you said, “No,  
I will not let go  
of your hand.”

\*

Now I am diving for a tide to take me everywhere

Below  
the soft Pacific spoils  
a purple girdling of the globe  
impregnable

\*

Last year the South African Minister of Justice  
described Anti-Government Disturbances as  
Part of a Worldwide Trend toward the  
Breakdown of Established Political and Cultural  
Orders

\*

God knows I hope he's right.

## 9. II Eranskina: Monografiak

I.E.: Informaziorik ez.

G: Gizonezkoa

E: Emakumea

Titulua	Egilea	Sexua (Eg)	Jat. hizkuntza	Itzultzailea	Sexua (Itz)	Itzulpen titulua	Jat. urtea	Jat. Herrialde	Itzul. Urtea	Bilduma
I.E.	I.E.	I.E.	Gaztelania	I.E	I.E.	Ahotsa, hitzak, hizkuntzak: euskal olerki antologia. Voz, palabras, lenguas: Antología de poesía vasca. Voix, mots, langues: Anthologie de la poésie basque. Voice, words, languages: anthology of basque poetry.	I.E	EH	2010	

I.E.	I.E.	G+E	Katalana	I.E	I.E.	Antoloxía poética = Poesia antologia = Antología poética : (1990-2003) : Galeusca.	I.E	EH	2004	
I.E.	Friedrich Holderlin	G	Alemana	I.E	I.E.	Olerki guztiak	I.E	I.E.	2012	
I.E.	German Echevarria	G	Gaztelania	I.E	I.E.	Oroitzapen lirikoa (1964-2002)	I.E	I.E.	2003	GEEP
I.E.	Javier Viar	G	Gaztelania	I.E	I.E.	Hiria uhaskan (1970-2002)	I.E	I.E.	2003	GEEP
Fuego lento	Jorge Gonzalez Aranguren	G	Gaztelania	I.E	I.E.	Fuego lento / Gar mantsoa	I.E	EH	1989	GEEP
En los márgenes del cielo	Marisa Gutierrez Cabriada	E	Gaztelania	I.E	I.E.	Zerueren mugetan / En los márgenes del cielo	I.E	I.E.	1987	
Les exilés des sept	Michel Courougnon	G	Frantsesa	I.E	I.E.	Zazpietako desterratuak / Los exiliados de las	1977	EH	1977	



						siete / Les exiles des sept				
I.E.	Santo Juan de la Cruz	G	Gaztelania	I.E	I.E.	Idazlan autatuak	I.E	Espainia	1992	
Poesíes franciscano- moragallianes : i d'altres que potser no en són prou... : conventuáls, diverses, polítiques	Joaquin Cases Carbo	G	Katalana	Agustin Zumalabe	G	Poesíes franciscano- moragallianes... oraingoa ta laistergerokoa	1934	I.E.	1934	
Ars amatoria	Ovidio	G	Latina	Andima Ibinagabeitia	G	Ovidiusen Maita- bidea	K.a 2 - K.o	Erroma	1994	
Bucolicas; Georgicas	Virgilio	G	Grekerá	Andima Ibinagabeitia	G	Bergiliren Unai- eta Alor-kanta	I.E	Grezia	1992	
Bucolica; Georgica; Eneida	Virgilio	G	Latina	Andima Ibinagabeitia; Santiago Onaindia	G	: Idazlanak osorik: Unai- Kantak; eta Alor Kantak. Enearena	K.a.	I.E.	1966	
I.E.	Konstantinos	G	Grekerá	Andolin	G	Poema antologia	I.E	Egipto	1995	

	Kavafis			Eguzkitza						
Historias fingidas y verdaderas	Blas de Otero	G	Gaztelania	Andrés Urrutia	G	Istorioak, alegiazkoak nahiz egiazkoak	1970	Espainia	2016	
I.E.	Emily Dickinson	E	Ingelesa	Angel Erro	G	Poesia kaiera	I.E	AEB	2014	MPK
I.E.	Eugenio Montale	G	Italiera	Angel Lertxundi	G	Poesia kaiera	I.E	Italia	2015	MPK
I.E.	Georg Trakl	G	Alemana	Anton Garikano	G	Poesia kaiera	I.E	Austria	2014	MPK
I.E.	Gabriel Ferrater	G	Katalana	Aritz Galarraga	G	Poesia kaiera	I.E	Katalunia	2015	MPK
Pura coincidencia	Itziar Minguez	E	Gaztelania	Aritz Gorrotxategi	G	Kointzidentzia hutsa	2010	Espainia	2010	
Fables	Jean de La Fontaine	G	Frantsesa	Artxu	G	La Fontainaren Aleghia berheziak neurt-hitzez franzesetik uskarara itzuliak	1668	Frantzia	1848	
I.E.	I.E.	G	Gaztelania	Bernardo Estornes Lasa	G	Cantar de Roncesvalles y otros poemas navarros		EH	1979	

I.E.	Audre Lorde	E	Ingelesa	Danele Sarrugarte	E	Poesia kaiera	I.E	AEB	2016	MPK
Hyperion oder Der Eremit in Griechenland	Friedrich Holderlin	G	Alemana	Eduardo Gil Bera	G	Hyperion	1797	Alemania	2001	
I.E.	Friedrich Holderlin	G	Alemana	Eduardo Gil Bera	G	Poemak	I.E	Alemania	2001	
L'Allegria	Giuseppe Ungaretti	G	Italiera	Eduardo Gil Bera	G	Poza	1931	Egipto	1992	
Divina Commedia: Inferno	Dante	G	Italiera	Emmanuel Intxauspe	G	Danteren comediaren lehen zatia	1308	Italia	1892	
Les bucoliques	Cocteau, Jean; Rostand, Maurice	G	Frantsesa	Felipe Juaristi	G	Euskal bukolikoak	1912	Frantzia	2010	
Bruma y conciencia	Fernando Aramburu Irigoyen	G	Gaztelania	Felipe Juaristi; Patziku Perurena	G	Bruma y conciencia / Lanbroa eta kontzientzia	1990	EH	1993	GEEP
Dört Hapishaneden [From the	Nazim Hikmet	G	Turkiera	Gabriel Aresti	G	Lau gartzelak	1966	I.E.	1971	

Four Prisons]?										
Iliáda	Homero	G	Grekerá	Gaizka Barandiaran	G	Iliasena	K.a. V	I.E.	1956	
Iliáda	Homero	G	Grekerá	Gaizka Barandiaran	G	Iliasena: Iliada Euzkeraz	I.E	I.E.	1954	
I.E.	Angel Gonzalez	G	Gaztelania	Gerardo Markuleta	G	Poesia Kaiera	I.E	I.E.	2016	MPK
I.E.	Carner, Josep; Riba, Carles; Foix, J.V.; Salvat-Papasseit, Joan; Quart, Pere; Espriu, Salvador; Vinyoli, Joan; Ferrater, Gabriel; Andrés i Estellés, Vincent	G	Katalana	Gerardo Markuleta	G	Antologia: Poeta katalan garaikideak [Antologia]	1997	Katalunia	2014	
I.E.	Carner, Josep; Riba, Carles; Foix, J.V.; Salvat-Papasseit, Joan; Quart,	G	Katalana	Gerardo Markuleta	G	Antologia: Zenbait poeta katalan [Antologia]	1980	Katalunia	1997	

